

Euskadi Osorako Erabakiak

Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA

2157

202/1986 DEKRETUA.- Irailaren 30ean emandakoa. Legebiltzarra ezabatuz eta Hauteskundeetarako deia eginez.

Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legeak, bere 7.c) eta 50. ataletan, esku ematen dio Lehendakariari Legebiltzarra ezabatzeko, Jaurlaritzak azteru ondoren.

Ezabatzeko eta Hauteskundeetarako deia egiteko Dekretuak bete behar dituen baldintzak zehazten dira Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Azaroaren 25eko 28/1983 Legearen 45 eta 82.2 ataletan.

Eskubide horretaz baliatuz eta Jaurlaritzak 1986.eko Irailaren 25ean egindako Berarizko Bilkuran aztertu ondoren, Legebiltzarra ezabatzea eta Hauteskundeetarako deia egitea erabaki dut. Jaurlaritzak, Irailaren 30ean egindako Agizko Bilkuran aztertu eta onartu ditu halaber, politika-alderdiei, baterakundeei, hauteskundebatasun edo elkatei hauteskunde-gastuetarako herri-dirulaguntza gisa emango zaizkien zenbatekoak, beti ere zerrendakide batek gutxienez ezein hauteskunde-barrutian legebiltzarkide-toki bat atera izanaren baldintzapean.

Hori dela eta, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

1. *atala*.- 1984.eko Otsailaren 26an hautatutako Eusko Legebiltzarra ezabatuta gelditzen da.

2. *atala*.- 1.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako deia egiten da. Hauteskunde horiek, 1986.eko Azaroaren 30ean egingo dira.

2.- Azaroaren 25eko 28/1983 Legearen 9. atalak dioenaren arauera, hirurogeita hamabost legebiltzarkide hautatuko dira, hauteskunde-barruti bakoitzeko hogeita bost hain zuzen.

3. *atala*.- Autonomia-Elkarteak, hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzak emango ditu, honako arau hauei atxikiz:

a) 825.000 peseta, legebiltzarkide bakoitzeko.

b) 120 peseta, hautagai-zerrenda bakoitzak ateratako boto bakoitzeko, beti ere zerrendakide batek gutxienez ezein hauteskunde-barrutian legebiltzarkide-toki bat atera izanaren baldintzapean.

AZKEN ERABAKIA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, 1986.eko Irailak 30.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

PRESIDENCIA

2157

DECRETO 202/1986, de 30 de Septiembre, de Disolución del Parlamento Vasco y Convocatoria de Elecciones.

Los artículos 7.c) y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de Junio, del Gobierno, facultan al Lehendakari a disolver el Parlamento, previa deliberación del Gobierno.

Los artículos 45 y 82.2 de la Ley 28/1983, de 25 de Noviembre, de Elecciones al Parlamento Vasco, establecen los requisitos que debe reunir el Decreto de Disolución y Convocatoria de Elecciones.

En uso de dicha facultad y previa deliberación del Gobierno reunido en Sesión Extraordinaria celebrada el día 25 de Septiembre de 1986, he resuelto disolver y convocar Elecciones. El Gobierno igualmente ha deliberado y aprobado en Sesión Ordinaria de 30 de Septiembre, las cantidades que han de corresponder, como subvención pública de gastos electorales, a los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones electorales, siempre que, al menos, uno de sus miembros obtenga escaño en cualquiera de sus circunscripciones.

DISPONGO:

Artículo 1.- Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el 26 de Febrero de 1984.

Artículo 2.- 1.- Se convocan Elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el domingo día 30 de Noviembre de 1986.

2.- El número de escaños a cubrir, de conformidad con lo establecido en el artículo 9 de la Ley 28/1983, de 25 de Noviembre, es de setenta y cinco a razón de veinticinco por circunscripción.

Artículo 3.- La Comunidad Autónoma subvencionará los gastos electorales de acuerdo con la siguiente regla:

a) 825.000 pesetas, por escaño.

b) 120 pesetas, por voto obtenido por cada candidatura siempre que al menos uno de sus miembros haya obtenido escaño en cualquiera de las circunscripciones.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de Septiembre de 1986.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.